



ÑIMIÑO

Ñimiño esaten didate, txiki-txikia naizelako. Mahaira ia

iristen ez naizelako eta, leihotik bestaldera begiratzeko, beti aulkiren batera igo behar izaten dudalako.

Neba-arrebak, berriz, luze-luzeak ditut!

Haiek asko hazi dira eta jakitokiko goi-goiko apalera heltzen dira eta han dagoen mermelada hartzen dute. Nik, ordea, ez. Laguntza eskatu behar izaten diet beti.

Batzuetan, korridorean edo pasiloan korrika nabilenean, neba-arrebek estropezu egiten dute nirekin.-Egunen batean zapaldu egingo zaitugu-esaten didate.

Hazi egin nahi dut, azkar, haiek ni ez zapaltzeko.

Eta batez ere, mermelada hartu ahal izateko. Nire urteak zenbatzen ditut hatzekin.

Esku osoa.

Hemendik aurrera den-dena jangio dut; entsalada, zopa, haragia... Handi-handia egingo naiz horrela.

URSULA WOLFEL

Barre egiteko hogeita zortzi istorio (Moldatua)

IA ULERTU DUZUN

- **Zergatik esaten diote Ñimiño ipuineko neskatoari?**

Andereñoa delako.

Txiki-txikia delako.

Ñir-ñir egiten duelako.

- **Aukeratu eta idatzi hitz zuzena beheko esaldian:**

ilehoriak/ luze-luzeak/ beltzaranak/ txikia

Ñimiñoaren neba-arrebak ----- dira.

- **Zergatik hazi nahi du Ñimiñok? Idatzi E egia bada eta G gezurra bada.**

Neba-arrebek ez zapaltzeko.

Aulkira igota kalea ikusi ahal izateko.

Mermelada hartu ahal izateko.

Neba-arreba nagusiek baino urte gehiago izateko.

- **Osatu :**

Zerekin zenbatzen ditu Ñimiñok urteak?

Zenbat hatz edo hatzamar ditugu esku bakoitzean?

Zenbat urte ditu Ñimiñok?

- **Zer egingo du Ñimiñok handi-handia egiteko?**